



Izenburua: Estilo Liburua.
Egileak: Patxi Petrirena, Irene Arrarats, Jaione Alberdi, Jose Luis Aranguren, Arkaitz Goikoetxea eta Beatriz Zabalondo.
Argitaletxea: Euskaldunon Egunkaria.
Orri kopurua: 344.
Salneurria: 2.500 pezeta / 100 libera.

MARTXELO OTAMENDI

EGUNKARIAko zuzendaria

«Guretzat pozgarria da jakitea Euskaltzaindiak kasu batzuetan gure aukera lehenesten duela zalantzak dituenean»

IÑAKI URIA

EGUNKARIAko kontseilari ordezkaria

«EGUNKARIA beti saiatu da komunitate oso baten, hizkuntza baten, estilo arauak ezartzen eta betetzen»

koarekin. Uriaren arabera, arauak beharrezkoak dira baina zailena da idazleak eta pertsonak arauetatik askatasunera pasatzea, «eta hori da, hain zuzen ere, estiloa».

Uriak gogoratu zuenez, lehenbiziko liburua Koldo Izagirik zuzendu zuen eta Luis Fernandez, Josu Landa eta Xabier Mendigurenen laguntza izan zuen, beste batzuren artean. Bigarrena, 1996. urtean kaleratutakoa, Patxi Petrirenak eta Luis Fernandezek egin zuten, EGUNKARIAko zuzentzaile taldearen laguntzarekin eta 2001ekoa, berriz, Petrirenak berak landu du azken urtean zehar, beti ere EGUNKARIAko euskara taldearen laguntza zuela.

Testua errazteko ohiturak

Petrirenak aipatu zuen 2001eko *Estilo Liburua*-n idazkuntzak izan duela lehentasuna eta horren barruan, argi idaztea: «Testua erraztu dezaketen zenbait ohitura eman ditugu, eta aldiz, irakurketa oztopatzen duten zenbait fenomenoren azterketa egin dugu. Puntuazioa ere inoiz ez bezala landu dugu, batzuetan ahaztuta geratzen delako».

Irene Arrarats EGUNKARIAko euskara taldeko buruak, bere aldetik, nabarmendu zuen Euskaltzaindiaren arauak «zintzo-zintzo» onartu dituztela.

Arauak, aholkuak eta izendegiak

ADIBIDEZ BETETAKO LIBURUA. *Estilo Liburua*-ren arauak eta aholkuak barneratzeko esaldi okerren eta egokien adibide ugari azaltzen dira

IDAZKUNTZA

Idazkuntza atalean, testuaren ordena nola zaindu, paragrafoa nola antolatu, lo-kailuen erabilera, adierazpenak emateko modua eta esaldiaren antolamendua jorratzen ditu liburuak:

2.3.2. Erreferentzia bat baino gehiagoko pasarteetan, kontuz elipsiekin

Elipsia lotura argia da erreferentzia bakarreko pasarteetan, baina bat baino gehiagokoetan iluna izan daiteke joskera zaindu ezean:

Gelan zeuden bitxiak hartu eta aita, semea eta bizilagun batzuk atzetik zituztela iges egin zuten lapurrek, baina haien arrastoa galdu egin zuten. (Nork norena?)

Gelan zeuden bitxiak hartuta, aita, semea eta bizilagun batzuk atzetik zituztela, alde egin zuten lapurrek, baita ihes egitea lortu ere. (Lapurrek, alegia).

PUNTUAZIOA

Puntuazio atalak lotura handia du idazkerarekin, testu argiak idazteko garrantzi handia baitu egoki puntuatzeak. *Estilo Liburua*-k zenbait aholku ematen ditu ohiko koma-puntu binomiotik haratago joateko.

3.5.2. Lokailuen inguruan (aurreko perpausaren muga)

Lokailuaren ondoan (ondotik, edo alde bietan) koma jartzen da. Aurreko esaldiarekiko mudan, ordea, gutxienez puntu-komak (eta askotan puntua) behar dute *aldiz*, *ordea*, *hala ere*, *izan ere* eta beste zenbait lokailuk. Ez da egokia, adibidez, esaldi hau honela idaztea:

«Alavesentzat nahikoa izan daiteke puntu bakarra lortzea, guk, aldiz, irabazi beharra daukagu».

Honela bai:

«Alavesentzat nahikoa izan daiteke puntu bakarra lortzea; guk, aldiz, irabazi beharra daukagu».

GRAMATIKA

Gramatika jorratzen duten orrialdeetan zenbait deklinabide arazo aztertu dira (-a organikoa, mugagabeak...); izenaren eta aditzaren hainbat arazo eta esaldiari dagozkionak.

4.2.10 Izena eta aditza jokoan.

c) esaldi oso abstraktuak egitea.

Bilgunearen osaketa hezkuntzaren egoerari buruzko *eztabaida* eta *hausnarketa* prozesu baten ondorioa da.

Egokiago:

Hezkuntzaren egoeraz *eztabaidatu* eta *hausnartu* ondoren erabaki dute Bilgunea osatzea.

Halaber aipatzen dira oso hedatuta dauden zenbait topikori nola egin aurre.

4.5.4. 'bizi dugun egoera'

Elkarte antolatzaileak adierazi duenez, mila parte-hartzaile gutxiago izateko arrazoiak azken egunetan Euskal Herrak bizi duen eguraldi txarra da. (Desegokia)

Elkarte antolatzaileak adierazi duenez, mila parte-hartzaile gutxiago izateko arrazoiak azken egunotako eguraldi txarra da. (Egokiagoa).



GARI GARAIALDE

Datorren astetik aurrera egongo da salgai EGUNKARIAREN *Estilo Liburua*.

ORTOTIPOGRAFIA

Ortotipografia atalean zenbakiak nola idatzi azaltzen da eta letra larria, xehea eta etzana noiz erabili. Izen berezien idazkera ere lantzen du *Estilo Liburua*-k, hau da, siglak nola eman, kanpoko toki eta pertsona izenak nola transkribatu eta kirol taldeen izenak nola diren euskaraz.

Euskal Herriko izendegiari leku gehiago eman zaio 2001eko argitalpenean, herri guztiak ez ezik, auzo asko eta Nafarroako kontzejuak ere sartu baitira. Aldaketa ugari izan dira azken urteotan, Euskaltzaindiak izen ugariren behin betiko formak eman dituelako. Izen bakoitzari buruz honako informazioa eskaintzen da: euskal izena, herritar izena, izen ofiziala, udalerria, herrialdea eta oharra.

Baigorri /baigorriar/ Baigorri, Saint-Etienne-de-Baigorri /b./ NB / (harana ere bada)

Barainka / / b./ Ispaster / B/

Lehen aldiz, *Estilo Liburua*-k Euskal Herriko mendateen zerrenda ematen du eta ondoren mendi tontor nagusiak euskaraz nola idatzi behar diren zehazten du, bai eta zein garaiera duten eta zein mendizerran dauden ere.

Arthanolatze (Harsüdürra/Escaliers) 1.530 (Z)

Artxueta (Aralar) 1.343 (N)

Artzamendi 926 (L)

Artzanburu (Aizkorri) 1.368 (G)

Astobitza 577 (A)

HIZTEGIA

Estilo Liburua-ren azken zatia hiztegi bat da. Sarritan zalantzak sortzen dituzten hitzak, erdarakadak, maileguak, esaldi traketsak eta halakoak agertzen dira hor.

errepaso* e. **begiratu**, **gainbegiratu**. & Emaiozu begiratu bat honi.

errepikagailu* e. **hedagailu**. & Mendi kaskoan dago telebista hedagailua.

errepikatu [Ez erabili 'garaipena errepikatu' 'berriz irabazi' esateko. Ez erabili 'Alkateak errepikatu' egingo du alkatetzarako zerrendaburu gisa' baizik eta 'alkatea berriz hautagai izango da'.

erreportaia ['a' itsatsia] [Euskaltzaindiak ez du hitz honetan 'aia'/'aje' amaieraz erabakirik eman oraindik]. errepostu* e. **arrapostu**, **erantzun**.

MUNDUKO HERRIALDEEN IZENDEGIA

Munduko herrialdeen izendegia dator ondoren, estaturik gabekoak barne, eta horiei buruzko informazio interesgarriak:

GABON/ Gabondar Errepublika

Biztanleak: gabondar (1,2 m biz). *Eremua:* 267.667 km². *Hiriburua:* Libreville. *Hiri nagusiak:* Port Gentil, Franceville. *Hizkuntzak:* frantses (ofiziala), fang (267.000), shira (214.000), punu (107.000) eta beste zenbait. *Dirua:* CFA franko. *Etniak:* fang (% 35,5), mpongwe (% 15), mbete (% 14,2), punu (% 11,5) eta beste zenbait bantu tribu. *Erligioak:* katoliko (% 65,2), protestante (% 18,8), animista (% 2,9).

Gales. Galesez, *Cymru*. Eremua: 20.766 km². *Biztanleak:* gales (2,9 m). *Hiriburua:* Cardiff (galesez, Caerdydd). *Hizkuntza:* 575.000 lagun inguru mintzo dira galesez. Transkripzioetan, Galesezko izenak oso arrotzak egiten zaizkigu; beraz, ingelesezkoak hobetsiko ditugu, baina galesezko erak ere aipatu hizkuntzari buruzko artikuluetan.

ingelesez

Cardiff

Colwyn Bay

Holyhead

Newport

Swansea

galesez

Caerdydd

Bae Colwyn

Caergybi

Carnewydd-ar-Wisg

Abertawe